

## 65. FITXA BIZKAIA - Erabilera edo zerbitzu publikoei atxikitako azpiegituretan udal-eskumeneko inbertsioak sustatzeko dirulaguntzak

**Nori zuzendua:** 2024ko urtarrilaren 1ean udal erroldan dauden datuen arabera 7.500 biztanle edo gutxiago dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak.

**Sarbide-esteka:** <http://www.bizkaia.eus/udalnet>

**Erreferentziatzko araudia:** [Bizkaiko Foru Aldundiaren 119/2024 FORU DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, zeinaren bidez onartzen baitira erabilera edo zerbitzu publikoei atxikitako azpiegituretan udal-eskumeneko inbertsioak sustatzeko xedez Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Foru Sailak 2025ean emango dituen dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak.](#)

**Eremuak:** Udal azpiegiturek

**Zenbatekoa:** 3.000.000 €

**Eskabideak aurkezteko epea:** 2025/02/17

### Laburpena

Dirulaguntza hauen xedea da **erabilera publikoari atxikita geratuko diren edo zerbitzu publiko baterako izango diren ondasunak eraiki edo hobetzeko** udal-eskumeneko jarduketak sustatzea, halako azpiegituren maila egokia lortzeko.

### Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Dirulaguntza jaso dezaketen jarduketak honako inbertsio-programa hauetan sailkatuko dira:

- Titulartasun publikoko eraikinak, instalazioak eta ekipamenduak eraiki, birmoldatu eta berritzeko lanak.
- Egun ibilgailuentzat zabalik dauden guneak oinezkoentzako gune bihurtzea.
- Bide publikoak eta hiriko aparkalekuak egiteko eta horietan zoladura jartzeko lanak.
- Erabilera publikoko ondasunak estaltzea eta hornitzea, hala nola aparkalekuak, garraio publikoko geralekuak edo parkeak.
- Uraren, saneamenduaren, argiteria publiko, gasen eta komunikazioen hornikuntzetarako azpiegiturek.

f) Irisgarritasuna hobetzen duten azpiegiturak.

Dirulaguntzak inbertsio iraunkorretarako bakarrik emango dira, baldin eta udalaren etorkizuneko egoera ekonomikoa eta finantzak arriskuan jartzen ez badituzte.

Administrazioak inbertsioak bere bitartekoekin egiten dituenean, pertsonal-gastuak ez dira diruz laguntzekoak izango.

Diruz lagundu daitekeen inbertsioztat jotzen dira kasuan kasuko erabilera edo zerbitzu publikoari atxikitako altzariak.

## Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz lagundutako jarduketak gauzatzeko epea **2026ko maiatzaren 31n** amaituko da. Horretarako, bakarrik hartuko dira kontuan 2026ko uztailearen 31ra arte ordaindutako fakturak

Diruz lagundutako gastuak 2025eko aurrekontu-ekitaldiko ordainketa-kredituen kargura xedatu beharko dira, 2025eko urriaren 6an amaituko den epe luzaezinaren barruan.

Urte askotarako gastu-proiektua denean, 2025eko ekitaldia baino lehenagoko ekitaldietan adjudikatutakoa, 2025eko ekitaldiko ordainketa-kredituen kargura burutuko den inbertsioaren zatiak baino ezin izango du jaso dirulaguntza.

Gastua deialdiko ekitaldian xedatzeko baldintza ez da betetzat joko baldin eta kredituak aurreko ekitaldi batean konprometitutako soberakinen gehikuntzari badagozkie.

## Laguntzen zenbatekoa

Deialdi honetan, 1.200 biztanle edo gutxiagoko udalerrietarako, gehienez ere **60.000 euroko** aurrekontua soilik hartuko da kontuan onuradun bakoitzeko, edozeindelarik ere diruz laguntzea eskatzen den aurrekontuaren zenbatekoa.

Gainerako udalerrientzat, berriz, gehienez ere **100.000 euro**, onuradun bakoitzeko, izango da diruz lagundu daitekeen aurrekontua.